



Euskaltegiak: matrikulazioen bilakaera Araban, 1986-2006


EAE n 2006an hogei urte lehenago baino 9.414 heldu gutxiago ari da euskalduntzen euskaltegetan. Hala ere, Araban alderantziz gertatzen da, 2006an duela 20 urte baino 1.378 heldu gehiago ari da euskara ikasten euskaltegetan. Guztira 2006an 6.441.

	Euskaltegetako matrikulazioa		
	1986	1996	2006
Araba	5.063	6.529	6.441
Bizkaia Gipuzkoa	41.424	37.234	30.632
	46.487	43.763	37.073

Arabaren euskaltegetara jo duen helduen kopuruak gorantzako joera erakutsi du: gaur egun EAE n euskaltegetara jotzen duenetatik %17,37 arabarrak dira.



Mailakako matrikulazioari dagokionez, ordea, guztira, 20 urtetan euskaltegietako urteroko matrikulazio kopurua mila ikasle inguru hazi dela ikus liteke grafikoan, tartean datua altuago kokatu izan den garaiak egon badira ere.



Euskaltegietako ikasle hauen urrats edo mailari dagokionez, oro har, maila baxuenetako matrikulazioak beheranzko joera apal bat izan dute eta goranzkoa, berriz, maila erdi eta altuenetakoak, jakina, hezkuntza sistemari esker.